


Galdera bitxia

Zer gertatzen da kolore bati denbora luzez adi-adi begiratzen badiozu?


Materialak

- Arkatz bat
- Erregela bat
- 2 paper zuri
- Errotuladore hori bat, berde bat eta beltz bat
- Kronometro bat



Zer egin

1. Marraztu 15 cm-ko aldeko karratu bat paperetako batean.
2. Marraztu 2,5 cm-ko lodierako ertz hori bat karratuaren inguruan.
3. Koloreztatu barruko eremua berdez.
4. Egin puntu beltz bat karratuaren erdian.
5. Argi distiratsua izanik, heldu paperari, eta begiratu adi-adi puntu beltzari minutu batez, begiak kliskatu gabe.
6. Denbora hori igarotakoan, begiratu paper zuriari. Zer ikusten duzu?



Zer gertatzen da?

Karratuaren irudia ikusi duzu paper zurian, baina beste kolore batzuetan. Zure begiko atal berezi batzuek, kono deritzenek, argi berdea, gorria eta urdina bereizten dituzte. Kolore horiek dira argi zuria osatzen duten hiru kolore primarioak. Puntu beltzari adi-adi begiratu diozunean minutu batez, kolore horri dagozkion konoek etengabe lan egin dute. Ondoren, paper zuriari begiratu diozunean adi-adi —gogoratu hiru kolore primarioek osatzen dutela zuria—, lehenago lanean ari ez ziren konoak soilik jarri dira lanean, gainerakoek lan gehiegi egin baitute.